

NOLA ERABILI

10. GELTOKIA

Bideoa ikusi aurretik, gida didaktiko honetako orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatzea proposatzen dizuegu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutenaren berri izango dute eta errazago ulertuko dute bideoan esaten dena. Bideo-gelako saioak ikasitakoaren berrikustea izan behar du. Ikasgelan egindako lana finkatzeko saioa, alegia.

Bideoan hiru atal nagusi bereizi ditugu.

PARTITIBOA *-(r)ik*

13:22

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

URDURITASUNA

14:37

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Non dago? Zein da? Laukote bakoitzari gai bat hartzeko esango diogu —geografia, natura, hizkuntza, hirigintza, literatura, ...—. Ondoren, talde bakoitzari hamar galdera prestatzeko esango diogu, era honetakoak: non dago munduko ibairik luzeena? (geografia); zein da ezagutzen duzun hitzik luzeena? (hizkuntza); non dago munduko eraikinik handiena? (hirigintza).

PARTITIBOA -(r)ik

Partitiboa kasu berezi samarra da. Izatez NOR kasuaren barruko kasu bat da. Partitiboa *-rik* kasu markaren bitartez gauzatzen da. Eta mugagabeen bakarrik deklinatzen da.

Partitiboarekin aditza beti singularrean doa.

Ez dut gizonik ikusi.

Ba al dago ardirik?

Neskarik badator, esan.

Partitiboak NOR kasuak perpausean duen funtzio bera betetzen du: Iragangaitzetan subjektu funtzioa betetzen du:

Ez dago lanik. (*subjektua*)

Eta iragankorretan objektu funtzioa:

Jonek ez dauka lanik. (*objektua*)

URDURITASUNA

Oihane bilera garrantzitsu batera doa.

- MIKEL** Aizu, Oihane, itxaron. Hartu al duzu **bolalumarik?**
- OIHANE** Bada, ez, ez dut hartu bolalumarik.
- NEREA** Lasai. Mahai gainean bolaluma mordoa daukazu.
- MIKEL** Eta urik? Ipini al duzu urik?
- NEREA** Bai, borila handi bat ur eta edalontziak jarri ditut.
- MIKEL** Oihane, badakizu, ez zaude bakarrik.
- NEREA** Bai horixe! **laguntzarik** behar baduzu hemen gaude gu, laguntzeko prest.
- OIHANE** Eskerrik asko, lagunak.

Oihanek alde egiten du.

- MIKEL** Aizu, Nerea, zein da Euskal Autonomia Erkidegoko **mendirik** garaiena?
- NEREA** Zer?
- MIKEL** Ea zein den Erkidegoko mendirik garaiena.
- NEREA** Bada, Aizkorri. Zergatik?
- MIKEL** Ez, ez da, bada, Aizkorri.
- NEREA** Zein da, jakin badaiteke?
- MIKEL** Ba al daukazu **dirurik?**
- NEREA** Dirurik? Askok, ez. Baina zertara dator galdera hori?
- MIKEL** Informazioak bost euro balio ditu.
- NEREA** Bost euro? Beno, Mikel, utzi ergelkeriak alde batera eta esan zein den Erkidegoko mendirik garaiena.

MIKEL Erkidegoko mendirik garaiena Aitxuri da.
NEREA Aitxuri?
MIKEL Bai, Aizkorri mendizerran dago. Aitxurik 1551 metro ditu eta Aizkorrik, 1528.

BERRIKUSTE AZKARRA

Ba al daukazu dirurik?

Eta urik? Ipin al duzu urik?

Bai horixe! Laguntzarik behar baduzu hemen gaude gu,
laguntzeko prest.

Erkidegoko mendirik garaiena Aitxuri da.

Partitiboa ez da NOR

Ekarri duzue dirua? NOR kasua. Denok dakigu zeri buruz ari naizen. Bideoa ordaintzeko dirua, txangoa ordaintzeko dirua, sarrerak erosteko dirua, garraiolariari emateko dirua, eta abar. Ekarri duzue dirurik? Partitiboa. Ez gara diru kopuru jakin batez hitz egiten ari.

Telefonoz

OIHANE Nerea, bihar ordainduko ditut sarrerak. Ekarri dirua, ados?
NEREA Ongi da. Ahaztu gabe ekarriko dut.
OIHANE Mikel, bihar ordainduko ditut sarrerak. Ekarri dirua, ados?
MIKEL Ongi da. Ahaztu gabe ekarriko dut.

Hurrengo egunean, kalean.

OIHANE Ekarri al duzu dirua?
NEREA Bai, ekarri dut. Hartu.

Mikel elkartzen da nesketara.

MIKEL Ez daukat dirurik kontzertura joateko.
NEREA Lastima! Prestatu tortilla on bat guretzat. Goseak etorriko gara kontzertutik eta.

Nerea eta Oihane badoaz.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:
Euskal Gramatika Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI,
Josemari:
Gramatika Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:
Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com